

ARANTZAKO SORGINA.

A EREDUA, 6. MAILA, NARRAZIOA.

Testuak 261 hitz ditu.

LAGINA: 5 ikastetxe, 6 ikasgela, 108 ikasle.

Testua: Ipuina da. Hitzen bat zaila egin ahal zitzaien, adibidez: "herrenka ibiltzea". Bederatzi galdera egin ziren, horietatik 5k berriazko informazioa bilatzea zuten helburu; 1k, testua bere osotasunean ulertzea; 1k, interpretazio bat garatzea eta 2k, testuaren edukiaren edo formaren gaineko hausnarketa egitea.

Emaitza: Batez besteko puntuazioa **7,03** izan da.

Galdera bakoitzaren erantzun egokia eman zuten ikasleen ehunekoak:

G1	G2	G3	G4	G5	G6	G7	G8	G9	G10	G11
97,00	43,00	84,00	78,20	56,00	57,75	90,00	40,50	95,00	(*)	(*)

Zuzenketak: Erantzunen formatua batu egin da. Protagonistaren izena "Joxepa" izango da, ipuinaren ulermena errazteko. Aditz denbora guztiak lehenaldian jarriko dira. 3 hitzen Hiztegia erantsi da. Testuaren interpretazio garapena indartzeko eta trebetasunen arteko oreka izateko asmoz bi galdera berri sartu dira. Horrela, probak 11 galdera izango ditu.

Ondorioak:

Aplikazioa egin ondoren, probak 11 galdera izango zituela erabaki zen. Galdera horiek hurrengo trebetasun hauei dagozkie:

1T (informazioa bilatzea)	G2, G3, G5
2T (testua bere osotasunean ulertzea)	G6
3T (interpretazio bat garatzea)	G4, G7, G8
4T (edukiaren edo formaren gaineko hausnarketa)	G9, G10, G11

Puntuatu nahi izanez gero, galdera bakoitzaren balorazioa honakoa izatea proposatu zen:

G1	G2	G3	G4	G5	G6	G7	G8	G9	G10	G11
1	0,5	0,5	1	0,5	1	1	1,5	1	1	1

Gutxienezko puntuazioa: **6**

Puntuazio horretatik behera irakurriaren ulermena ez da ontzat joko.

Aztertu egin beharko da zein galderatan egiten duen hutsa eta zein trebetasun diren landu behar direnak.

(*) galdera berriak dira eta ez zen aplikazioan testatu.